



GIZA ESKUBIDEEN LANKETA HEZKUNTZA EZ-FORMALEAN

2023 - 2024

eskubidez

baketik
ERALDATZE PROZESUAK, ETIKA
HARTUTIA ARRAUNTU
PROCESOS DE TRANSFORMACIÓN
CON SENTIDO ÉTICO

bakeola
EDE

Laguntzailea

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
BERDINTASUN, JUSTIZIA, ETIA GIZARTIA POLITIKETAK
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Hezkuntza Ez Formala eta Giza Eskubideen inguruko lanketa

Ikerketa bideratzeko oinarriak

Baketik Fundazioa eta Bakeola -EDE Fundazioa

2022-2023

2

1. Testuingurua eta aurkezpena

Eskubidezek, Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Erakunde-Foroak, 2022-2023 ikasturtean **kezka edota gogoeta batetatik abiatua ikerketa bat egin zuen**¹. Hau zen Foroaren kezka: “Euskadi mailan eskola ezberdinek elkartegintzatik datozen giza eskubideen inguruko lan proposamenen eskaintzei ez diete beti ere era positiboan erantzuten, eta badirudi eskolak gainezka egongo liratekeela horrelako proposamen mordoaren aurrean. Era berean, badirudi ere irakasleak, aldiz, senti dezakeela zenbait gai landu ahal izateko ez duela lortzen behar adina laguntza edota trebakuntza, ez duela bere burua gai edo prestatua ikusten, ez duela nahikoa denbora bere ikasgairako eta hortaz, zaila egiten zaiona horrelako ekimenak sustatzea, edo bada gutxiengo bat bada, bere arloarekin loturarik ez duela uste duenik ere (bereziki DBH eta batxilergoko mailetan)”.

Egoera honen aurrean ikerketa burutu eta emaitzek bestelako ondorioak azaleratu zituen:

- Euskadi mailako ikastetxeetan giza eskubideen defentsa eta ezagutza sustatzen dela.
- Desberdinkeria edota diskriminazioa direla nagusiki lantzen diren GGEEak.
- Gutxien lantzen direnak ordea, indarkeria politikarekin loturiko bortizkeriaren ondorioak direla.

¹ “Giza eskubideen lanketa ikastetxeetan”: <https://eskubidez.org/eu/editorial/giza-eskubideak-ikastetxeetan/>

- Giza eskubideen lanketarako bertako eta kanpoko adibideak lantzen direla
- Lanketa jorratzerako orduan, elkarte ezberdinekin lankidetzan aritzen direla, edota elkarte horiek sustatutako materialak baliatuz.
- Teoriaz haratago barne lanketa sustatzen dute jarrerak eta jokabideak arduratsuak sustatuz.
- Baina tamalez erantzunek argi erakusten dute giza eskubideak ez daudela orohar kurrikulumetan ondo sartuta edota zeharkako moduan kontutan hartuta:
 - askotan egun zehatzen inguruan edota zenbait gunere berezietan (tutoretza orduetan, adibidez) lantzen dira.
 - Kasu batzuetan irakasleen esku dago, beraien sentsibilitatearen esku.
 - Ikastetxe bakan batzuk, bizikidetzak eta GGEEak beraien ikur egiten dutenak GGEEak era sistematizatuan landuz.

Hau horrela izanik, **abiapuntu interesgarria izan da Hezkuntza Ez Formalean (HEF) egoera nola dagoen aztertze**ko. Hasi aurretik, azaldu nahi da ikerketa honetan Hezkuntza Ez Formatuari buruz hitz egiten dugunean, *Gazte Aukera* baitan dagoen definizioa hartuko dugu kontutan².

Astaldi Hezigarria bizitzatik eta bizitzarako ikasteko gunea da, edozein etapatan, baita harreman positiboak ezartzeko, talde-proiektuak sortzeko, balioak esperimendatzeko, bizipen esanguratsuak biltzeko, gaitasunak eskuratzeko eta herritartasuna eraikitzeko ere.

Astaldi Hezigarriko espazioek hainbat forma dituzte: astialdiko taldeak, ludotekak, gaztegunek, jarduera-zentroak, udalekuak eta kanpamentuak, profil hori duten eskolaz kanpoko jarduerak, hiri-espazioak, campusak edo gazte-trukeak.

Astialdiko hezkuntza funtsezkoa da sozializatzeko, gizarteratzeko eta norberaren nortasuna eraikitzeko eta ***garatzeko***, bizitzan zeharreko balioen arabera, haur eta nerabeen belaunaldi berrientzat.

² Gazte aukera: Euskadiko gazteentzako Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen espazioa da non programak eta zerbitzuak jasotzen dituen. <https://www.gazteaukera.euskadi.eus/aisialdirako-heziketa/hasiera/>

Euskadiko astialdi-hezigarriko taldeak gizarte-ekimeneko erakundeak dira, batez ere borondatezkoak, komunitateetatik sortu eta haien zerbitzura jartzen direnak, haiekiko loturari eutsiz.

Horrela izanik, **erronka handia dauka ikerketa berak**, hartzailearen aniztasuna ikusita, oinarritzko datu- base bat lortzea ezinbesteko lana izan da eta ez da hain lan erraza izan. Gainera, lurralde bakoitzak bere eredu propioa dauka. Egun eragile ezberdinak batzen dituzten sareak ere probintzia ikuspegia dute batzuk, EAE mailakoa besteak eta eragile batzuk ez daude sareturik. Horregatik **bidelagun ugari hartu behar izan ditugu kontutan hasierako mapa hau ongi osatzeko**. Pausu hau ezinbestekotzat jo dugu eta ikerketan eragin dezake alde aurretik zehaztutako metodologian aldaketak eraginez.

Hortaz lehenengo ikerketatik **hainbat elementu kontutan izan dugu eta malgutasun handiarekin jokatu**, ez baita Hezkuntza Formala bezain zehatza: ez dago bateraturiko kurrikulum adostu bat, hezkuntza eredu bakarra, erreferentziazko sare bakarra, e.a. Guzti hau ezagutu eta antolatu behar izan dugu hasieratik.

Ikerketa honetan, **HEF lau esparru edo eredu ezberdin hartu ditugu** kontutan:

- **Astialdi eskolak:** Gaztematikan³ jasotzen den moduan, “Astialdi eskolek astialdi hezitzailean aritzeko beharrezkoa den prestakuntza ematen dute. Hau da, astialdiko begirale eta zuzendari tituloak lortzeko ikastaroak antolatzen dituzte.”
- **Astialdi taldea:** begirale eta bolondres gazteez osatutako elkarrekin dira. Auzo, herri edo eta komunitate batean txertaturik burutzen dute beraien heziketa iharduera. Normalean asteroko saioak, txangoak, elkarbizitzak eta udako ekintzak (udalekuak, kanpamenduak, ibilaldiak, elkartrukeak, e.a.) antolatzen dituzte gazteei bestelako heziketa bat eskainiz. Gure herrietan Astialdi taldeak eta eskautek osatzen dute esparru hau.

³ Gaztematika: Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udalek lurraldeko haur, nerabe eta gazteen sustapenerako sortutako sare publikoa. Gure sarearen helburua da gipuzkoarrei beren haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan laguntzea, pertsona autonomo gisa beren biografia eraiki dezaten. <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gazteria/aurkezpena-gaztematika>

- **Astialdi taldeetako sareak:** Astialdi elkarteak eta eskolak koordinatuta daude hainbat plataformetan. HEFren inguruan sinergiak bilatzen dituzte, amankomuneko proiektuak bultzatu eta astialdiaren hedapena sustatu.
- **Astialdi zerbitzuak:** udalek beren haur, nerabe eta gazte politiketan sustatzen dituzten astialdi zerbitzuak dira. Gehienetan elkarte batek kudeatzen ditu zerbitzu hauek. Gaztematikak jasotzen duen arabera 3 esparru hauetan gutxienez badaude zerbitzuak:
 - **Haurtxokoak,** aisialdia baliatuz, haurrak herritar gisa prestatzea jomuga duten zerbitzu publiko eta profesionalak dira. Haurtxoko gehienek erabiltzaileak 7-11 urte arteko haurrak dira.
 - **Gaztelekuak,** aisialdia baliatuz, nerabeak herritar gisa prestatzea jomuga duen zerbitzu publiko eta profesionalak dira. Gehienek 12-17 urteko erabiltzaileak dituzte eta Gipuzkoa osoan 50 ekipamendu baino gehiago daude.
 - **PSZ** zerbitzuen xedea da, haurtxoko eta gazteleketan bezala, tokian tokiko haur, nerabe eta gazteei beren haurtzaroaz eta gaztetasunaz gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea bermatzea.

2. Ikerketaren nondik norakoak

- Egun Euskadi mailan Astialdia burutzen duten eragileen datu base on bat lortu.
- Giza eskubideen arloan burutu diren ikerketen berri jaso.
- Astialdia egiten duten eragileek, beren jardueran, giza eskubideen inguruko ekintzen nondik norakoen berri izan.
- Hezitzaileen aukera, zailtasun eta beharren berri izan.

- Aurrera begira, GGEE arloan lantzeko kontutan izan beharreko gakoak jaso

3. Ikerketaren azken funtsa

6

Aurreko datuen bilketa eta ondorioen eraikuntzak, ahalbidetu du:

- Euskadi mailako hezkuntza ez formalean Giza Eskubideen arloan dauden behar eta aukerak identifikatzen.
- Esparru honetan dagokigun arloan burutzen diren ekintzen berri izaten.
- Hezkuntza Ez Formalean, GGEEei dagokionean, zein arlo lantzen den gehien, zein gutxien eta erabaki horien arrazoiak ezagutzen.
- Eragile ezberdinen arteko koordinazio hobea sustatzen
- Giza eskubideen hezkuntza Astialdian kontzienteago egiten

4. Metodologia

Ikerketak alde kuantitatiboa eta kualitatiboa biltzen ditu bere baitan: inkesta baten bidez (online sistemaren bidez) 47 hezitzaile eta hezkuntza ez formaleko profesionalen ikuspuntua bildu dugu. Kasu batzuetan elkarte berakoak izan arren, herri ezberdinetan dihardute lanean.

ARABAKO ERANTZUNAK		ERAKUNDE MOTA
1	Itaka-Escolapios	Astialdi eskola
2	Tiempo libre Azterlariak	Astialdi taldea
3	Movimiento calasanz (Itaka-Escolapios)	Astialdi taldea

BIZKAIKO ERANTZUNAK		ERAKUNDE MOTA
1	Euskalerriko eskautak Bizkaia	Astialdi desberdinetako sarea
2	Kiribil sarea	Astialdi desberdinetako sarea
3	Escuela TL EDE Fundazioa	Astialdi eskola
4	Itaka-Escolapios-Bilbao	Astialdi eskola
5	Argizai eskaut taldea	Astialdi taldea
6	Arrontegiko ainara kultur elkarte	Astialdi taldea
7	Berbaro elkarte	Astialdi taldea
8	Cruz Roja juventud	Astialdi taldea
9	EKO-ACG	Astialdi taldea
10	Eskubeltz eskaut taldea	Astialdi taldea
11	Gaizkinak Eskaut Taldea	Astialdi taldea
12	Grupo de tiempo libre Alaiki de Santurtzi	Astialdi taldea
13	Indautxuko eskautak	Astialdi taldea
14	Gozaldi gazte Elkarte	Astialdi zerbitzua
15	Aisi - hezi	Astialdi zerbitzua

GIPUZKOAKO ERANTZUNAK		ERAKUNDE MOTA
1	Hezi zerb*	A.Z. desberdinetako koord.
2	Kukulaisi astialdirako elkarte	Astialdi desberdinetako sarea
3	Aisiola zirimola hezitzaile eskola	Astialdi eskola
4	Asociación de TL Alaitasuna Asialdi Elkarte	Astialdi taldea
5	Fundación Itaka Escolapios Tolosa	Astialdi taldea
6	Fundación Itaka- Kirikiño Tolosa	Astialdi taldea
7	Grupo scout aizkorri scout taldea	Astialdi taldea
8	Hezten aisialdi euskaltzalea	Astialdi taldea
9	Izartxo zumarraga	Astialdi taldea
10	Jardun euskara elkarte	Astialdi taldea
11	Kirikiño, itaka-escolapios	Astialdi taldea
12	Mariaren bihotza gazte elkarte (Urrats)	Astialdi taldea
13	Andoaingo gazte lokala	Astialdi zerbitzua (A.Z.)
14	Bele Gazte Gaztelekua	Astialdi zerbitzua
15	Gaztelekua- Donostia	Astialdi zerbitzua
16	Haize-orratz gaztelekua- Zarautz	Astialdi zerbitzua
17	Hernaniko gaztelekua	Astialdi zerbitzua
18	Hezi zerb- Bidebieta Haurtxoko	Astialdi zerbitzua
19	Hezi zerb- Intxaurrondoko Gaztelekua	Astialdi zerbitzua
20	Hezi zerb- Martunetene Haurtxoko	Astialdi zerbitzua
21	Hezi zerb- Aiete Haurtxoko	Astialdi zerbitzua
22	Hezi zerb- Egiako Gaztelekua	Astialdi zerbitzua
23	PSZ Ibarra	Astialdi zerbitzua

24	Tolosako gazte topagunea	Astialdi zerbitzua
25	Txurrumuski K.A.G.E- Orio	Astialdi zerbitzua
26	Xaguxar aisialdi taldea	Astialdi zerbitzua
27	Zehar Heziketa eta Programak	Astialdi zerbitzua

EUSKADI MAILAKO ERANTZUNAK		ERAKUNDE MOTA
1	Bosko taldea	Astialdi desberdinetako sarea
2	Izartxo Astialdi elkarte- La Salle	Astialdi desberdinetako sarea

Inkesta osatu eta aztertu ondoren, on line formatoan burutu ditugun hainbat topaketa edo elkarriketen bidez, ikuspegi kualitatiboa jaso dugu, sakontasuna bilatuz, bai eta euren arteko kontraste lana eginez.

Ikerketa honetan **Astialdi eragileak identifikatu ditugu**. Esan bezala, aniztasuna da ezaugarrietako bat (astialdi taldeak, ludotekak, gaztelekuak, trukaketak,...) eta une honetan esparru honen egoera bera ezagutzea izan da abiapuntua. Horretarako dauden **HEF sareekin harremanetan jarri gara**: Astialdi Foroa-EGK, Astialdi Sarea eta Gaztematika (Gipuzkoan), bereziki.

Aldez aurretik jakin badakigu **eskuhartzen duten eremua zabala dela**:

- Adinari dagokionean: haur, nerabe eta gazteekin eskuhartzen baitute (5-29 urtetako hiritarrak).
- Eskuhartzeko ereduari dagokionean: urte osoan zehar astero burutzen den ekintza edo urtaro zehatz batean burutzen dena.
- Astialdia sustatzeko formatoari dagokionean: espazio itxi batean, naturan edo bidai baten baitan.

Eta hortaz, **mapa osoa izan ondoren, baloratu da zein perfilekin burutuko den azken azterketa**. Aukera eta saiakera ezberdinen ostean, plataforma bakoitzarekin harremanetan

jarri eta elkarrizketa partekatu bana burutu dugu HEF Euskadin duen hedapenaren berri jasotzeko.

2024ko otsailak 20an, Astialdi Sareko ordezkariekin elkartzen gara eta ikerketaren berri ematen diegu beraien babesa lortuaz. Sarea prest dago bere baitan dauden elkarte, eskola eta eragileen artean ikerketaren berri emateko eta inkesta hedatzeko.

Bigarren hitzordua, **inkesten emaitzak eta HEFren inguruan hausnarketa partekatua burutzeko Astialdi Sareko kideekin maiatzaren 14ean** elkartzen gara eta bertan parte hartu duten eragileak hauetxek izan dira:

- Hezkide eskola
- Hezten
- Kirikil sarea
- Urtxintxa eskola Bizkaia
- Bosko Taldea Federazioa
- Astialdi sareko koordinatzaileak



Astialdi Foroko arduradunekin (Astialdi Foroa eta Hezkuntza teknikaria), otsailak 22an elkartzen gara ekimenaren berri emateko. Beraien bidez foroan dauden elkarteengana zuzenean iritsiko da bakarka bete beharreko inkesta eta ondoren burutuko den topaketaren inguruko informazioa ere beraiek zabalduko dute. Horrela, **maiatzak 21ean, Euskadiko Gazteen Kontseiluko Astialdi Foroko kideekin elkartu gara**⁴:

- Itaka-Eskoplapios
- Gurutze gorria
- Euskadiko Gazteen Kontseilua



<https://egk.eus/eu/hasiera/>

⁴ Maiatza hilabete zaila: udako ekintzak antolatze aldera hilabete lanpetua izan ohi da, eta gainera unibertsitateko ikasleak izanda, azterketa garaia izan ohi da. Hortaz jabetzen gara ez dela unerik onena horrelako topaketak antolatzeko.

Azkenik eta Astialdi Sareko kideen aholkuz, “**Astialdi Hezigarria Sustatzeko 2030 Euskal Estrategiako**” **arduradunekin** elkartzeko proposatzen digute eta **2024ko martxoak 26an** elkartzen gara **estrategiako zuzendariarekin**.

Bukatzeko, **udal zerbitzuen errealitatera hurbiltzeko**, hainbat zerbitzu kudeatzen dituzten elkarteekin egin ditugu **elkarrizketak**:

- 2024/06/20 Bele Gazte Gaztelekua- Zegama
- 2024/06/21 Aisi Hezi elkarteak_ Bilbao
- 2024/06/21 Zehar elkarteak_ Deba
- 2024/06/26 Tolosako Gaztelekua
- 2024/07/03 Hezi zerb_ Gipuzkoan hainbat gazteleku eta haurtxoko kudeatzen ditu.



5. Inkestaren emaitzak

2024ko martxotik apirilera bitartean, Euskadiko astialdiko hezitzaileei/monitoreei zuzendutako galdetegia zabaldu zen, hezkuntza ez-formaleko gune horietan giza eskubideen inguruan egindako lanaren errealitatea ezagutzeko. Galdetegia e-mailez eta berehalako mezularitzako kanalez bidali zen, eta guztira 47 erantzun jaso ziren epe barruan.

Galdetegi honetako galdera gehienak erantzun anitzekoak ziren, eta horrek erraztu egiten du erantzunen kategorizazioa, baina, era berean, lekua utzi zitzairen inkestatuek galdera itxietan garatzeko edo azaltzeko aukerarik izan ez zutenari buruz idatz zezaten.

5.1. Parte-hartzaileen xehetasunak: oinarritzko datuak

Jasotako erantzunen artean, EAEko hiru lurralde historikoetako elkarteek ordezkariak dugu. Hala ere, Gipuzkoan funtzionatzen duten elkarteetatik jaso ditugun erantzunen kopurua oso handia izan da: Gipuzkoako 26 erantzunak jasotako erantzun guztien % 55 izan dira, Bizkaikoak 15 izan dira (% 32) eta Arabakoak 3 izan dira (laginaren % 6,5). Gainerako % 6,5 lurralde batean baino gehiagotan diharduten elkarteek betetzen dute; zehazki, autonomia-erkidegoan lan egiten duten bi taldek eta Bizkaian eta Gipuzkoan lan egiten duen batek.


Erantzunak aztertzean kontuan hartu den beste faktore bat parte-hartzailearen elkarte mota izan da. 19 erantzun jaso dira, eta horrek erakusten du astialdirako erabiltzen diren elkarteek sistema eta sareak zein konplexuak diren. Erantzun horien guztien artean, bost kategorია nagusi daude: astialdiko zerbitzuak (18 erantzunekin) astialdiko talde bateko kideak (16 erantzunekin), astialdiko eskolak (5 erantzunekin), astialdiko hainbat talderen sarea (6 erantzunekin) eta azken kategoría bat, "beste batzuk" izenekoak (bi erantzunekin).

Astialdiko talde horiekin harremana duten gazteen adina 6 eta 18 urte artekoa da, baina 10 eta 16 urte bitarteko gazteetan gehiago eragiten da, eta horiekin lan egiten dute inkestatuen % 70ek baino gehiagok.

5.2. Giza Eskubideen garapena

Giza eskubideei buruzko lehenengo galdera izan zen ea giza eskubideak beren astialdiko espazioetan lantzen ziren. Erantzuna irmoa izan da, 45 pertsonak, guztizkoaren % 95,8k, baietz erantzun baitute. Datu horrek adierazten du astialdirako espazioetan Euskadiko gazteek giza eskubideekin lotutako gaiekin harremanak dituztela eta gai horiek jorratzen dituztela.

¿Trabajáis los Derechos Humanos con los participantes/jóvenes?



13


Bi pertsonak erantzun zuten ez zutela giza eskubideen gaia lantzen. Hala eta guztiz ere, horrek adierazi dezake ez direla zuzenean lantzen, baina bai egindako jardueretan, ondoren ezezkoarekin erantzun zuen pertsona batek idatzi zuen bezala: "Ez ditugu giza eskubideak zuzenean lantzen, baina eguneroko jardueretan zeharka lantzen ditugu".

Giza eskubideak zeharka txertatzea askotan aurkitu dugu ikerketa honetan giza eskubideak lantzeko modutzat. Euskararen erabilerarekin lotutako ekimenen gaia giza eskubideak taldearen jardueran txertatzeko modu bat ere izan daiteke, zehazki, hizkuntza-eskubideak, kulturarako eskubidearen zati gisa. Horren ondorio izan daiteke pertsona horietako batzuentzat, zuzenean ez heltzeak ez direla lantzen esan nahi duela, baina hori ez da zertan horrela izan.

Lehenengo galderari baietz erantzun ziotenen artean, lantzen dituzten giza eskubide espezifikoei buruz galdetu zitzairen. Hauek izan ziren emaitzak:

Berariaz galdetu ez bada ere, inkestatueta batek jakinarazi digu haurren eskubideak

¿Cuáles de los derechos humanos trabajan?



tratatzten direla kide den astialdi-eskolan. Horrek adierazten digu beti egon daitezkeela giza eskubideekin zerikusia duten eta grafiko honetan jaso ezin diren beste alderdi batzuk, giza eskubideen ikuspegitik landu daitezkeen gai asko baitaude.

Bildutako datuekin, landutako giza eskubideei buruzko erantzunen puntu esanguratsuenetako batzuk erakusten dira jarraian:

- Mota desberdinetako diskriminazioak dira astialdiko guneeetan gehien jorratzen diren gaiak.
 - Generoa da parte-hartzaile guztiek jorratzen dutela adierazi duten kategoria bakarra, %100ek.
 - Arrazakeriarekin eta LGTBIQ+ komunitatearekin zerikusia duten diskriminazioak ere kasu gehienetan lantzen dira, %80 pasatxok, eta ondoren, dibertsitate funtzionalak eragindakoak, %78k.
- Ondoren, giza eskubideei eta adierazpen-askatasunari buruzko ezagutza orokorra datoz, biak % 69 eta % 67, hurrenez hurren.


- Kontrako muturrean, motibazio politikoko indarkeriaren gaiak daude, EAEko kasuari dagokionez, % 16k baino ez baitituzte jorratzen, 7 parte-hartzailek.

Astialdiko espazioetan oinarritutako ikerketa izanik, datu horiek gaur egun eta, zehazki, gazteen artean gehien agertzen diren gaiak ere adierazten dituzte. Era berean, motibazio politikoko indarkeriarekin eta gure iragan hurbilaren historiarekin lotutako gaiek duten pisu txikia islatzen da. Iritsi zaigun datu horrek, aisialdirako espazioen % 16k baino ez duela gai hori jorratzen, adierazten du gaur egun ere isiltasun handia dagoela motibazio politikoko indarkeriaren inguruan, eta gazteenek ez dutela harremanik astialdirako guneetan gure gizartearen historiaren zati horrekin. Ikerketaren alderdi kualitatiboan, egindako elkarriketetan, gai hori astialdiko espazioetan zergatik ez den lantzen sakonduko da.

Giza eskubideen alderdi horiek guztiak alderdi teorikoak eta gaitasun praktikoak kontuan hartuta landu daitezkeela aintzat hartuta, galderetako batek gai horretan ere sakontzen zuen. Inkestatutako pertsonen erdiek baino gehixeagok (25 pertsona) adierazi dute giza eskubideen inguruko lana gaitasun praktikoen zatian soilik zentratzen dela. Aipagarria da, halaber, % 35,5ek (16 pertsona) alderdi teorikoak eta praktikoak konbinatzen dituztela. Azkenik, adierazi behar da galdera honen erantzunak ez daudela baldintzatuta, galderari erantzuten dion pertsonaren elkarte motaren arabera.

¿En qué se basa el trabajo en torno a los derechos humanos?


- Trabajamos especialmente el aspecto teórico o el conocimiento
- Trabajamos especialmente las competencias o aspectos prácticos
- Ambas
- No sabe/No contesta



Ikerketa honek aztertzen duen beste alderdi bat lantzen diren eskubideen kokapena da, hau da, giza eskubideen inguruko lana atzerrian kokatzen diren errealitateetan zentratzen den, edo alderantziz, gertutasun-kasuetan, dela estatuan, autonomian, herrian edo komunitatean.

Erantzunen erdiek baino gehiagok (27 pertsona, % 60) adierazi dute bi kasuak lantzen direla, eta 17 pertsonak (% 38) adierazi dute geografikoki gertuen ditugun kasuak direla gazteekin tratatzen direnak. Lana atzerrian gertatzen diren kasuetan soilik zentratzen den kasuak gutxiengo dira, eta erantzun batek adierazi du lan egiteko modu hori (% 2).

¿De dónde son los casos relacionados con los derechos humanos con los que trabajáis?



Taldeen agendan gai horiek sartzeko formatuari buruz ere galdetu da inkestan. Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, gehiengo batek, 32 pertsonak, parte-hartzaileen % 71k, ikasturte osoan zehar giza eskubideak lantzen dituztela diote, bere hezkuntza-proiektuaren zati gisa.


Kopuru horrek erakusten du Euskadiko astialdi-taldean planean zenbateraino txertatuta dauden giza eskubideak. Elkarriketetan gai hori sakondu egin da, talde horien errealitatea zein den hobeto jakiteko. Gainera, erdiek baino gehiagok, 30 pertsonak eta guztizkoaren % 67k, adierazi dute egutegian jarritako egun bereziak giza eskubide zehatzen inguruan lan egiteko baliatzen direla, hala nola, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna.

Inkestan parte hartu zuten pertsonen % 38k (17 pertsona) Gabonak edo Aste Santua identifikatzen dituzte giza eskubideak lantzeko unetzat. Kopuru berak udako kanpalekuak aipatzen ditu gai horiei heltzeko gune gisa. Galdera horretan bai ikusten da lotura dagoela taldeak egindako jardueren eta haien erantzunen artean.

Astialdi-eskola bateko parte-hartzaileetako batek ematen dituzten prestakuntzetan giza eskubideen inguruan egiten duten lana ere azpimarratzen du. Pertsona horrek egiten zuen

iruzkinarekin lotuta, txosten honek astialdiko hezitzaileek/monitoreek berek giza eskubideei buruzko ezagutzak eskuratzearekin zerikusia duen alderdia aztertuko du aurrerago.

Formato en el que trabajan los Derechos Humanos




17

Giza eskubideen lan-formatuari buruz jasotako erantzunen ildotik, erantzunen % 80k adierazten dute egiten duten lanean giza eskubideak presente izatea taldearen apustu sendoa dela. Hiru pertsonak (% 7) esan dute beste eragile batzuekin batera edo eskatuta egiten dela lan hori. Hiru pertsonak, % 7k, hezitzaile/begiraleen berezko ekimenari egozten diote. Bi pertsonak (% 4) adierazi dute aurreko arrazoi guztiak aplikatzen direla, eta pertsona batek (% 2) aditzera eman du prestakuntza-eskaeren ondorioz egiten dela lan hori.


Los derechos humanos se trabajan:

- Porque es una apuesta firme de la asociación/servicio
- Parte de la prioridad y la voluntad de cada monitor/educador
- A propuesta/impulso/colaboración de otro agente
- Ambas



Gazteekin giza eskubideak lantzeko orduan, astialdiko espazioetako langileen eta begiraleen ezagutza-mailari ere erreparatu behar zaio. Arlo horretan dituzten ezagutzei buruz duten pertzepzioari buruz galdetuta, gehienak "Batere gai ez" izatetik "Oso gai" izatera doan eskalaren goiko aldean kokatu ziren, zehazki, inkestatutako pertsonen % 76.


Para abordar el tema de los derechos humanos
con el grupo,
¿Tienes formación/preparación o te ves capaz?



Nahiz eta gehienak giza eskubideei heltzeko prest sentitzen diren, egia da % 40k onartzen dutela prestakuntza hori beren kabuz lortzen dutela. Bestalde, % 33k beren talde/zerbitzuan edo astialdiko elkartearen sarean egiten diren prestakuntzaren bidez jasotzen dituzte ezagutza horiek. % 23k astialdiko eskoletan eta begirale-ikastaroetan zeharka egiten den giza eskubideei buruzko ikaskuntzari egiten dio erreferentzia. Parte-hartzaileetako batek adierazi du dagoeneko izendatuta dauden hainbat metodo konbinatu direla, eta azken pertsona batek Eskubidezek eskainitako Bake-kultura, Bizikidetza eta Giza Eskubideen ikastaroa aipatu du, giza eskubideei buruzko ezagutzak eskuratzeko tresna gisa.

Adquisición de conocimientos sobre derechos humanos

- Por cuenta propia
- Formación interna del servicio/grupo/red de tiempo libre
- Escuela de tiempo libre / Cursos de monitorado
- Otros




19

Gehiengo nagusiak (% 97,8) beren kabuz (elkarteen/zerbitzuen baliabideen eskutik, hala nola hezitzaile/monitoreen eskutik) jartzen dituzte praktikan ezagutza horiek, beste elkarte eta zerbitzu batzuekin batera (% 56), baita erakunde publikoek sustatutako programen barruan ere (% 31).

Kontuan izanda astialdiko hezitzaile/monitore askok giza eskubideei buruzko hezkuntza sustatzen duten hainbat elkarte eta taldek ematen dizkieten materialak erabiltzen dituztela, tresna horiei buruz egiten den balorazioa ezagutzea interesatzen zaigu.

Valoración de los recursos que reciben



Inkesta honetako parte-hartzaileek egin dituzten ohar nagusiak honako puntu hauetan zentratzen dira:

- Galdetutakoen % 46k uste du beren kabuz egin behar dutela ahalegina material horiek aurkitzeko. Ehuneko handia da, kontuan hartuta % 29k adierazten duela eduki gutxi dituela eskura. Ildo horretan, % 22k adierazi du zuzenean ez dutela horrelako materialik jasotzen.
- Eskura dituzten baliabideak eta materialak beren beharretara egokitzen dira % 37k adierazi dutenez, eta % 20k kontrakoa uste du. Gai honi dagokionez, pertsona batek honako hau zioen: "Nahikoa baliabide ditugu, baina teoritik praktikotasunera eramatea kostatzen zaigu".

Azpimarratutako datuekin batera, materialen balorazioari buruzko gainerako oharrek hezitzaileei/monitoreei beharrezkotzat jotzen dituzten baliabideak formatu erabilgarri batean helarazteko konplexutasunaren berri ematen digute. Horren harira, pertsona batek honako hau adierazi du: "Gaiaren arabera, batzuetan prestakuntza zuzena jaso dugu, beste batzuetan ez dugu formakuntzarik, ezta baliabide handirik eta guk bilatu behar izaten dugu, eta beste batzuetan eskainitako hauek gero moldatu egin behar ditugu, izan ere, ez daude gure errealitatera oso moldatuak". Elkarrizketetan gai horretan sakondu ahal izango da, material hori eskuratzeko dituzten iturriekin edo kanalekin lotuta.

Ikasle dituzten gazteen adinari dagokionez, jasotako erantzunek adierazi digute hori kontuan hartu beharreko faktorea dela giza eskubideen gaiari heldzean. % 42k dio gaiak eta landutako giza eskubideak taldekoen adinaren arabera egokitzen dituztela. Parte-hartzaileetako batek azaldu bezala: "Adinak garrantzia du, bai, baina denekin lantzeko moduak daude. Gazteenekin modu sinple batean eta helduenekin modu sakonagoan lantzen dira. Elkarrizketak eta gogoetak egiteko gaitasunak, azken batean, desberdinak dira adinaren eta pertsonaren arabera.

Etorkizunari begira, galdetegi honek erakusten du zer puntutan jarrai daitekeen lanean. Hala ere, ez dugu giza eskubideen elkarleen lanari buruz jasotako iruzkinak eskertzeko aukera pasatzen utzi, positiboki baloratzen baita: "berdin jarrai dezatela, lan ikaragarria egiten dute eta", "Egiten jarrai dezatela", "horrela jarrai dezatela, lan ona egiten ari dira eta". Hala ere,

erakunde horiekiko eskaera handienetako bat bertan egotea da, hurbil: "Beren lana gehiago ikusarazi dezatela", "Gehiago ezagutarazi dezatela".

Jasotako iruzkinak eta iradokizunak kokatzeko, eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzan diharduten elkarreentzat baliagarriak izateko, alderdi garrantzitsuenetako batzuk nabarmenduko ditugu jarraian.

MATERIAL EGOKITUA: Astialdiko hezkuntza-komunitateak egiten duen eskaerarik handienetako bat da eskura izatea adinaren arabera egokitutako materialak, bai eta astialdiko jardueren formatuaren arabera ere, ikuspegi praktiko eta dinamikoa.

Adinari dagokionez, erronka da helburu duten publikoaren behar eta errealitateetara egokitutako jarduera- eta baliabide-sorta bat eskaintzea. Hutsune handiena adin goiztiarrenetan dago, giza eskubideetan oinarritutako jarrera bat garatzeko oinarri diren balioak eta jarrerak lantzeko edukiak beti gara baitaitezke adin hauetan.

“Adin desberdinei egokitutako errekurtsuak eskura jartzea”

“GGEE adin desberdinetan lantzeko material egokitua”

“Baliabideak modu errazean eta adinka katalogatuta eskainitzea

“Umeentzako materiala sortzea”

Astialdiko espazioetan ohikoa den lan egiteko moduak ere materialak sortzen dituzten elkarrean egokitzapena eta ahalegina eskatzen du. Astialdiko hezkuntza-proiektuen ikuspegi dinamikoa emandako edukietan islatu behar da, proiektu horiek arobetxatu ahal izateko.

“Informazioa bidaltzeko zerbitzuetara egokitua eta dinamikekin”

“Material praktikoa, erraz erabiltzekoa, nerabeei zuzendutakoa. Material ludikoa izatea”

“Materiala prestatzea aisialdi taldean landu ahal izateko gazteekin, praktikoa”

Giza eskubideei buruzko lan-materialak egokitzeari dagokionez, kontuan hartu beharreko azken puntua gazteen errealitatearekin bat egiten duten baliabideak izateko beharra da. Azpimarratutako hurrengo aipamenean ikus daitekeenez, egindako jardueren alderdi dinamikoa eta praktikoa kasu errealak lantzeko beharrarekin lotuta dago, hau da, giza eskubideak gazteen eguneroko egoeretan, berrietan eta errealitateetan islatuta ikusarazteko beharrarekin.

“Teoriatik praktikara eramateko dinamika gehiago egotea. Dinamika errealak eta benetako sentibilizaziorako estrategia gehiago. Batzuetan, lanketak azaletik egiten dira eta ez dituzte egoerak identifikatzen”

“Haurren eta gazteen egunerokotasunean giza eskubideekin egindako lanaren adibide zehatz gehiago ezagutarazi ditzatela ”

SAREAK: Astialdiko taldeek eta elkarteek beren artean eta giza eskubideak aldarrikatzen dituzten elkarten artean komunikazio-bideak irekitzeko egindako eskaria ere identifikatu da, eta etorkizunean kontuan hartu behar da. Eragile horien arteko lankidetzaz bereziki onuragarria izan daiteke ekintza-eremu mugatuagoa duten taldeentzat.

“Elkarlana eta asoziasionismoa”

“Gurekin harremanetan jartzeko programa ezberdinak elkarrekin aurrera eraman ahal izateko aukerak baloratzeko”

“Elkarlana antolatu nahiko genuke, baina ez dakigu nola egin, eta ez gara kontuan hartuak izateko adina”

6. Eztabaida talde eta elkarriketetatik ateratako ideiak

Inkesta burutu eta aztertu ondoren, 47 erantzun jaso ondoren, eragile gehiagorengana iristeko beharra ikusita, **maiatzean 3 topaketa presentzial antolatzen dira**, hiriburu bakoitzean bana. **Baina izandako erantzun eskasa dela** eta, HEF hainbat sareekin topaketa batzuk antolatzen ditugu online modalitatean eta hauetan jasotako informazioarekin osatu dugu jarrian dagoen atala.

Topaketa hauetan jarraitu dugu lan eskema hauxe izan da:

- 1) Inkesten emaitzak partekatu eta lehen inpresioak jaso dira (inkestako emaitzak aldeztu aurretik partekatu dira eragileekin).
- 2) Hainbat galdera zehatz eta sakonak planteatu dira gaian sakontze aldera eta inkesten emaitzak elkarrekin aztertu dira.

Bertan agertzen diren emaitzak aldeztu aurretik esperotakoak direla diote eta agian ñabardurak gerora agertuko direla galdera zehatzetan. Baina orokorrean, inkesta emaitzak balekoak direla diote.

Jarraian azalduko dira, emaitzen aurrean elkarriketa eta topaketa hauetan jasotako ñabardurak.

GGEEen lanketa norainokoa den galdetzean...

Bi Sareetako kideekin egindako lan saioan agertutako ideiak hauek dira:

- GGEEak urtean zehar burutzen diren ekimenetan zeharka lantzen dira (modu transbertsalean), une zehatzetan batean kanpainaren batekin, bai eta Nazioarteko egunaren baten “aitzakipean” ere.
- Badirudi hainbat arlotan murgilduta daudenez, GGEEak presente daudela: haurren eskubideak eta tratatu onaren lanketan murgilduta daude eta guzti hauetan zeharka lantzen dituzte GGEEak.

Gazteen Zerbitzuei dagokionean, eta elkarriketen bidez jasotako informazioa aintzat harturik,

- GGEEak eta balioetan hezteko talde honen oinarrian dagoen arren, “GGEE” kontzeptua bera ez da aipatzen, ez de ikusgarri egiten zerbitzu hauetan haur, nerabe eta gazteekin egiten duten eskuhartze zuzenak.
- Normalean ez da saio bat bideratzen GGEE bere horretan ezagutarazteko edo lantzeko. GGEE lanketa HEFren oinarrian, “ADNan” dagoela azpimarratzen dute, uneoro zeharka lantzen direla (metodologian txertatuta doa). HEF erabiltzen den metodologia berak eguneroko jarreratan sakontzen laguntzen du eta dinamika(k) burutu ondoren egiten den hausnarketa balio izaten du balore eta jarreratan sakontzeko, idearioan/ taldearen marko hezitzailean jasotako ereduak azpimarratzeko. Hausnarketa honen bidez, haur eta nerabeek, barneratzen dituzte GGEE ezberdinak eta hauen defentsarako jarrerak.

- GGEE bere horretan aipatu beharrean, hainbat eskuhartze zuzen burutzerako orduan “protokolo”, jardunbide eta planteamenduak “lagunkoiagoak” ulertterrezak eta egunerokotasunarekin lotutakoak izateko egokitzen dituzte hezitzaileek.
- Kasu batzuetan, hezitzaile beraren sentsibilitate edo gaitasunetara mugatzen da GGEE lanketa. Baina badira bestelako Gazteleku batzuk, elkarte berak kudeatzen dituen, eta hausnarketa egina duena, eta GGEEen lanketa presenteagoa duena bereziki hezitzaileen artean eta programazioan eta barne formazioetan txertatzen duena.
- Egun seinalatuetan eta saio zehatz batzuetan, GGEE inguruko lanketa burutzen dela baieztatzen dute arduradun gehienek. Nazioarteko egunetan errazagoa da gaia girotuta dagoelako.
- Aipatzen da gazteen zerbitzuek potentzialtasun handia dutela gazteen heziketan eragiteko, eta beraz, bertan lantzen diren gaiak ere, gazteen hausnarketa, jarrera eta bizipenetan zuzeneko eragina dute. Kasu honetan, GGEE lantzen badira, zuzenean eragiten die beraiei ikuskeran. Baina zerbitzuak beraiek eta egindako lana ez daude behar adina aitortuak ez herri eta ez hiri askotan ere, nahiz ekarpena, eta gazteengan eragina izan baduten. Hezitzaileen lana ez da erraz neurtzekoa eta ez zaio behar adina baloratzen (pertsonekin egiten da lana, ez orduko “X” pieza egiten; hortaz, zaila da denbora eta eskuhartzea neurtzea eta hori batzuetan zaila bihurtzen da arduradun politiko batzuek ulertzea eta zuzeneko ondorioak dauzka kontratatzen diren zerbitzuetan eta beraz, burutzen den lanean).

GGEE guztiak ez dira maila berean lantzen... zeintzuk gehiago eta zeintzuk gutxiago?

- Astialdi taldeetako begirale eta hezitzaileek daukaten ezagutzatik abiatzen dira. Gaiak planteatzeko orduan gazteei ematen diete protagonismoa (beraiei proposatu eta zer landuko duten aukeratuz) eta horrek berak, eragiten du zein gai landu eta zein ez. Horrek berak errazten du gai batzuk askotan lantzea eta errepikatzea eta beste batzuk inoiz ez lantzea.
- Gaztematikatik hainbat formazio eta baliabide hurreratzen dizkiete eta horiei esker, lanketa ezberdinak bideratu dituzte: batzuetan gai batzuk planteatzeko ideiak jasoz; beste batzuetan espazio zehatz batzuk sortzeko planteamendua ezagutuz; bestetan formazioa hezitzaileek estrategia orokorrak izan ditzaten; rol berrien presentzia

aurkeztuz “inklusio figurak” adibidez. Dena dela, azpimarragarria da Gaztematikak sustatutako hainbat formazioetan ikuspegi komunitarioa txertatzen duela eta horrela, herriko beste eragile batzuekin elkarlana sustatzea lortzen dela eta gaia pil-pilean eremu ezberdinetan egotea, eraginkortasuna handiagotuz.

- Lantzen diren GGEE inguruan, hainbat gai errepikatzen dira: identitate sexuala, kulturartekotasuna, arrazakerian kontrako jarrerak sustatu, gaitasun-ezgaitasun ezberdinak, migranteen errealitatea, pobrezia, bullying eta tratu onaren inguruko jarrerak; emakumeen kontrako indarkeriaren kontra, euskararen eguna, Haurren eskubideen eguna, ingurugiroaren errespetoa, mugikortasuna, e.a. Hala ere, denak ez dira maila berean lantzen eta errazagoa da GGEE zehatz bat lantzea, taldean errealitate hori egon badago. Bestalde, herri bakoitzak badauzka bere gai eta arlo sentiberagoak eta hortaz, gazte zerbitzu bakoitza bere auzo edo herriko errealitatetik gertu dagoenez, gai batzuk errazago lantzen dira besteak baino.
- GGEE batzuk protagonismo handiagoa hartzen dute Gaztelekuko gazteren baten errealitatearekin bat baldin badator. Hau da, errealitatean bizi dituzten egoeretatik abiatzen badira, gazteengan erakartasun handiago dauka landutako gaiak eta horrela, urte batzuetan lantzen den gaiak agian ez dauka jarraipenik beste urte batean (gaia berak duen presentzia desagertu delako gazteak taldea uztean). Baina ez da prebentzioa lantzen horrelako zerbitzu askotan.
- Gazteen zerbitzu hauen indargunea, kokatuta dauden auzo edo herrietako errealitatearekin oso loturik egotea da. Hortaz, bertatik sustatzen diren ekintza askok, lotura zuzena daukate herri eta komunitatean protagonista izatearekin. Gazteen partaidetza errazagoa da tokian tokikoa izatea.
- Gaztelekuko zerbitzua doakoa izatea eta bertatik sustatzen diren ekimenak ere ahalik eta merkeen izatea garrantzitsua da bertaratu nahi duten guztiak gerturatzeko aukera izan dezaten (bereziki egoera zaurgarrienak dituztenak). Izan ere, Zerbitzutik herri mailan ematen den segregazioa hausteko saiakera egiten da, batzuetan lortzen da

baina askotan ez. Lortu denean aldaketak igartzen dira, talde ezberdinak hurbiltzea lortzen da. Irisgarri/doako izan behar dugu.

- Dena dela Euskal Herrian bizi izan den motibazio politikoko indarkeria eta terrorismoaren gaia, apenas edo ez da lantzen. Arrazoi ezberdinak agerian geratu dira: hezitzaileek beraiek gaia lantzeko zailtasun eta ezjakintasuna, gazteen aldetik interes eskasa (askok ez baitakite ezer gertatutakoaren inguruan), “alderdikeriarekin” lotzeko arriskua, gurasoen aldetik ez ulertzea, ez da “beharrik” ikusten (gainditua balego bezala), e.a.

Elkartrukeak egiten direnean ordea, “kanpotik” datozen gazteen aurrean identitate bat aurkeztu behar izaten dutenean, orduan bai lantzen dela gai zuzenean. Baina ez gaiak berez sor dezakeen interesagatik, kanpoko eragile baten aurrean gazteek beren burua definitu behar dutelako baizik.

- “Zerbitzua apolitikoa” dela aipatzen da; horrek agerian uzten du orokorrean “politikoa eta alderdikeria” kontzeptuak nahasten direla eta ondorioa esanguratsua da oso. Gazteekin diharduten hezitzaile guztiek, politika⁵ burutzen dutela argi izan beharko lukete nahiz eta egun, batzuk ez horrela izan. Ezinbestekoa da gazteekin demokraziaz hitz egitea, partaidetzaz, inplikazio politikoaz. Egun abstentzioa hain altua den honetan, bozkatzeko eskubidea aldarrikapen baten ondorio dela jakitea ezinbestekoa da. Gazteak komunitatearen gaitan inplikatzeko edo espazio politikoan egitea (alderdi, sindikatu, elkarte, e.a.) garrantzitsua da eta HEFak horretan eragina izan dezake. Hala ere, hori sustatzeko baliabideak eta erremintak behar dituzte hezitzaileek une honetan oso galduta daudelako.

GGEE lanketa, nork sustatzen duen galdetzean...

- Astialdi taldeetan heziketa proiektua egin ohi da lanaren oinarri gisa eta bertan jasotzen da maila guztietan landu beharreko gaiak. Hortaz, etapa bakoitzak zehaztuta

⁵ Politika: herri, hiri edo nazioa bat gobernatzeko moduari deitzen zaio politika, eta bertan balio zehatz batzuetan hezten da eredu den gizarte hori eraikitze aldera.

dauzka urtean zehar landu beharreko ildo nagusiak heziketa burutzen duten esparru guztietan (asteroko saioetan, elkarbizitzetan, udaleku eta kanpamenduetan) .

- Aldi berean, Astialdi taldeetan, taldeko koordinazio taldetik egiten diren proposamenetatik haratago, gazteengandik eta beraien beharretatik ere abiatzen dira; batzuetan zein besteetan, taldeko kideei beraiei arduratzen dien gaiak lantzeari lehentasuna ematen diete, eta beraz, herrian bertako edo inguruko gaiak lantzen dira.

Elkarrizketa batean gainera aipatzen da, adin honetako gazteek ez dutela gehiegi partehartzen, ez daudela partehartzera hezituta edo horretaz kexu direla hezitzaileak. Bere ustez hausnarketa beste modu batean egin beharko da: gazteek beraien modura parte hartzen dutenean, beraien eredu propioak dituzte, lasai hitz egiten dute, beraien beharrak adierazten dituzte eta beraien moduak dituzte parte hartzeko. Gazteen intereseko gaiak lantzeko, arreta jarri behar da hitz egiten dutenean, ideiak partekatzen dituztenean jasotzeko. Edo ideiak jaso nahi direnean, metodologia partehartzaileak eta berritzaileak planteatu behar dira, erantzun baikorra jasotzeko (word cafe, ikuspegi errestitatiboa, borobilean egindako lanketa, e.a.).

Egungo gazteek, ez dituzte helduon eskema asanblearioak edo parte hartzeko egitura antolatuak erabiltzen. Egungo hezitzaileak irekita egon behar du partehartzeko eredu ezberdinetatik abiatuz, interesak identifikatzeko.

- Federazioak edo sareturik dauden Astialdi taldeetan, erakundeak proposatzen ditu landu daitezkeen gaiak eta lantzeko moduak (baliabideak). Ildo berean aipatzen dute gaztekuetan dabilzan hezitzaileek ere. Azkenean, urtean zeharreko lan arlo eta gai batzuk daude eta horiei ematen zaie lehentasuna asteroko saioetan.
- Gazteen zerbitzu hauetako hezitzaileak aldakorrak dira eta normalean ez dago hezitzaile talde egonkorrik. Horrek ere taldean eragiten du, zer nolako esperientzietatik edo planteamenduetatik abiatzen diren hezitzaileak. Pentsa genezake urte gehiago duen pertsonak esperientzia eta formakuntza gehiago izan dezakeela hasi berria den begiralea baino eta hortaz, egoera berrien aurrean, erreminta eta esperientzia gehiago izan dezakeela.

- Gaztelekuetako arduradunen arabera, gazteei gaien inguruan hitz egiteko konfiantza eman behar zaie, hausnarketak egiteko espazio ziurra eta horrela lasaiago hitz egiten dute, ideiak partekatzen dituzte.
- Kasu honetan ere, Gaztelekuetako hezitzaileek, Gaztematikatik jasotzen dute formazio eta babesa azpimarratzen dute gai ezberdinak jorratzeko unean erreferentzia bat ematen zaielako.

GGEEta gazteak hezteko, hezitzaileak formatu behar izaten dute...Nola?

- Haur, nerabe eta gaztetxoek heziketan diharduten begirale eta hezitzaileak, GGEE eta oinarritzko ezagutza batzuetan formatuta egin beharra azpimarratzen dute denek. Horri esker, kontzientzia eta landu beharreko gaiak, moduak, markoak, e.a. hobeto ezagutuko dituzte eta beraiei kontziente diren neurrian, besteak ere kontzientziatuko dituzte. Bestalde aipatzen da begirale hauek oso aldagarriak direla eta hortaz, formakuntza uneoro sustatu eta bermatu behar dela. Horregatik, bakoitzak bere erakoa izan arren, formazio sistema bat diseinatuta daukate.
- Agerian geratzen da astialdi taldeetan, Federazioetik eta gazteen zerbitzuetan ere, guztietan formazioari garrantzia ematen zaiola eta denek sustatzen eta bermatzen saiatzen direla begirale eta hezitzaileak hezten beren iharduera, egokiagoa izan dadin. Barne bilera formalak urtean zehar, puntualak, gai zehatz batekoak, modu ezberdinetan sustatzen dira eta gai ezberdinak lantzen dira bakoitzean. Bestalde, begirale bakoitzaren esku geratzen da bere formazioan sakontzen jarraitzea, artikulua eta liburuak ere irakurri.
- Formazioak Federazioetatik, Astialdi saretik eta gazteen zerbitzua kudeatzen dituzten elkarteetatik abiatuta sustatzen dira formazioak; astialdi talde batzuk ere beraiei formazio propioak sustatzen dituzte (beraien heziketa arduradunek sustatuta barne saioetan edo elkarbizitza zehatzetan; edo kanpoko eragile baten laguntzarekin); bestalde, tokian tokiko udalek ere eskaintzen dituzte ildo ezberdinetako formazioak

eta Gaztematikak ere, eskaintza zabala duela azaltzen da. Gazteen Behatokiak ere hainbat formazio eskaintzen omen ditu.

- Kasu batzuetan presentzialki jasotzen dituzte formazioak eta besteetan online formatoan.
- Hezitzaile batzuk begirale ikastaroa burutzen dute oinarrizko ezagutza sendo batzuk izateko (hala ere, urtetik urtera, formazio honetan ere aldaketak izaten ari dira, EAEko eskoletan egin beharrean, beste Komunitate Erkidego batzuetan eskaintzen diren formazioak burutzen dituzte begirale batzuk. Presentzialki izan arren, ordu kopuru eskasekin eta begirale titulua egiteko praktikak EAEn egin nahi izaten dituzte. Ez dituzte EAEko baldintzak betetzen nahiz gerora, praktikan, begirale faltagatik, horiek ere kontratatzen diren).

Bestalde, urtean zehar formazio saio zehatzagoak izaten dira, besteetan tailer edo sensibilizazio saioak. Denek balio dezakete hezitzailea bera formatzeko, GGEE edo interesa dauden gaietan sensibilizatzeko. Gazteen zerbitzuetan ere antzeko eskema jarraitzen da baina abiapuntua ezberdina izan daiteke. Udalaren arabera, hezitzaileak beraiek perfil zehatz bat izan behar dute nahiz dinamizatzailer gisa kontratatzen dituzten (perfil honetako begiraleak hobesten dituzte: gizarte integrazioa, magisteritza eta hezitzaileak direnak).

- Astialdi eskolek GGEEen inguruko formazioak eskaintzen dituztela diote. Hala ere ez dago behar adina zehazturik. Lege markoak dio GGEE landu behar direla, konpetentzia batzuk garatu behar direla, baina ez du zehaztasun maila altuegirik eta hortaz, eskola bakoitzak nahiz jakin GGEEetan hezi behar duela, bakoitzaren esku geratzen da neurri batean (zeintzuk, ordu kopurua, nola, e.a. lantzea). Gainera, eskoletan formakuntza eskaintzen duten arduradunak ere, birziklatzen joan behar dute unean unean agertutako legealdi eta kasuistiktara egokitzeko. Bai eta, GGEE lanketa ikusgarri eta modu kontzientean egiteko ere.
- Aipatzen da bereziki gazteleketako errealitatean, hezitzaileak profesionalizatuak dauden esparruan, lan kontratu batekin, formazioa ere lanaren baitan egon arren,

ordu kopuru eskasa izan ohi dela horretarako. Nahiz kontratuan saiatu, ez da behar adina ordu formaziorako bideratzen, askotan udaleko ordezkari politiko batzuk “garesti” baloratzen dutelako zerbitzua, “inbertsio” gisa ikusi beharrean “kostu” gisa ikusten dutelako. Hortaz, Gaztelekuek komunitateari egiten dioten ekarpena azpimarratzea garrantzitsua dela ikusten da haur eta nerabeengan duen eragina kontutan izanik.

- Astialdi talde, sare eta gazteen zerbitzuetatik “LOPIVI⁶”- ak eta azken urtean kaleraturiko “Hautzaro eta Nerabetasun Lege berriak⁷” egindako ekarpena azaltzen dute. Lege berri hauen bidez, zehaztasun batzuk jartzen dira mahai gainean eta haurren eskubideak, adibidez, landu behar dira.

Jakin badakigu arautegi hauek protokolo luzeak eta hizkuntza zailekoak planteatzen dituztela; hortaz, elkarte eta zerbitzuek bertan jasotako mezu eta markoak, modu “lagunkoiagoan” prestatzen dituzte hezitzaile eta haur eta gazteei azaltzeko eta ulerterrezak izan daitezen. Era horretan legeak aplikazio zuzena izatea lortzen da.

GGEE lantzeko baliabideak...

- Formazioetan baliabide asko hurreratzen zaizkio ikastaroa egiten duen begiraleari eta beraz, formazioak teorikoetatik bezainbat daukate praktikotik (metodologia bera bizipenetatik abiatzen baita eta bertan hurreratzen direlako dinamika, protokolo, baliabide eta erremintak).
- Esan bezala, elkarte eta zerbitzu gehienak beraien sare (bertako eta estatu mailakoak), federazio eta Gaztematikako kideak dira eta beraz, hauetatik zuzenean, baliabide ugari jasotzen dituzte HEF egokitutakoak, horrek errazten die hezitzaileei beraien iharduera prestatzera.

⁶ 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osoki babesten duen legea.

⁷ 2/2024 Legea, otsailaren 15koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko.

Bestalde, elkarte bakoitzak bere baliabide propioak ere sortzen ditu behar duten gaia lantzeko. Edo zuzenean kontratatzen du beste elkarte bat gai zehatzetan espezialista dena eta ezagutza eta dinamika eta baliabideak hurreratuko dizkiona.

- Astialdi hezitzaileentzat hainbat formazio eta baliabide eskaintzen dituzten elkarte, sare eta zerbitzuak aipatzen dira; bereziki Gaztematika, Gizalde, Bizkaia gara, Sareginez, Baketik, Bakeola-EDE Fundazioa, Alboan, Didania⁸, «Gazteak eta Garapena» Fundazioa⁹, «Infancia en el centro»¹⁰, Euskal Herriko Eskautak, ea.

Erakunde batzuk baliabide zehatzak prestatzen dituzte hezkuntzara bideraturik eta hauek ere erabili ohi dira HEF egokituta (adib. Gosetearen kontrako kanpaina bideratzeko, «Manos Unidas» en baliabideetara jotzen da). Bestalde, interneteko bilatzaileetan ere hamaika dinamika eta baliabide ere topatu izan dituztela baieztatzen dute (noski, irizpide zehatz batzuk jarraitu behar dituzte aurkitutako baliabideek; denek ez dute balio, denek ez dute bat egiten elkarrearen ideario edo markoarekin, beraz begirada kritikoa ere jarri beharko da aukeratzeko orduan).

- Baliabideen beharra aztertzerako orduan, zailena HEF ereduaren oinarritutako baliabideak izatea litzateke, ez baita ikastetxeetako unitate didaktikoa erabiltzen; bestelako metodologiak erabiltzen dira.

GGEE lantzeko elkarte ezberdinen zerrenda, hauen baliabideak eta eskaintzen dituzten zerbitzuak jakiteak ere lana erraztuko liekeela uste dute, une honetan ez baitute horrelako erreferentziarik.

⁸ DIDANIA aisialdiko talde kristauen federazio bat da, eta bere eginkizuna aisialdi hezitzailean, animazio soziokulturean eta boluntariatuan lana koordinatzea eta sustatzea da, Ebanjelioaren planteamenduekin bat datozen estilo eta balio kritiko eta eraldatzaileekin gizartean esku hartzeko sarea ehuntzen duelarik. <https://didania.org/>

⁹ Salestarren federazioaren Fundazioa, lehen «Hirugarren Munduko Gazteak» deitua, garapenerako gobernu kanpoko erakunde (GGKE/ONGD) bat da; irabazteko asmorik gabekoa, zera da bere xedea: Munduan pobrezia erausten laguntzeko, iraunkor-, gizatiar-, sozial- eta ekonomiko garapena bultzatzen.

¹⁰ „Haurren Eskubideen aldeko Erakunde Mugimendua” Espainiako Estatu osoko irabazi-asmorik gabeko 36 erakunderen ekimena da. Arrisku-testuinguruan dauden haurrekin eta nerabeekin lan egiten dute lurralde-ikuspegitik. <https://lainfanciaenelcentro.wordpress.com/>

Batzuetan, aurkitzen dituzten baliabideak oso mardulak dira eta ez dira erraz egokitzen astialdi edo gaztelekuetako zerbitzuetara. Hortaz, ulerterrazak eta zehatzak izatea lagungarriak dira.

Bestalde, gai bat sakontzean, iturburura joatea ere garrantzitsua ikusten da; hau da, kulturartekotasuna landu behar da, aniztasunean sakondu, ezberdinen arteko errespetuan hezi; baina adibidez, gure herrietara etorkinak etortzearen arrazoi nagusia, beraien jaioterrian dauden baldintza prekarioak eta sufritzen ari diren gudak eta indarkeriak baldin badira, horren berri eta horren inguruko hausnarketa ere eman beharko litzateke. HEF-k gai horiek lantzeko aukera ematen ditu.

- Elkartrukeak eta ekintza zehatz batzuk (txangoak, kanpaldiak, ibilaldiak, e.a.), berez, beraien formatoengatik, baliabideak direla esan daiteke eta HEFk urteetan erabili izan ditu taldearen, eskolaren eta zerbitzuaren helburuak lortzeko. Izan ere, esparru berezia izanik, gai zehatzak lantzeko, jarreretan sakontzeko eta harremanak sustatzeko aukera ematen dute.

Elkartrukeak taldeetan burutu daitezke (nahiz lan andana suposatzen duen beste elkarte batekin koordinatu behar delako); baina gazteen zerbitzuetatik bideratzea egunetik egunera zailagoa dela azpimarratzen da. Izan ere begirale profesionalak izanik, lan orduak kontabilizatzeko moduak zaila egingo luke proiektuaren bideragarritasuna (litzazioetan zaila delako horrelako proiektu bat txertatzea duen kostuarengatik eta bideratu ezker, hezitzaileak bere aldetik jarri behar duen inplikazioarengatik). Beraz, profesionaltasuna areagotzen den neurrian, inplikazioa/bolondreski eskaintzen den denbora gutxiagotzen da eta zailagoa da ekimen batzuk burutzea ezin baita lan horren ordaina benetan soldatarekin kubritu (dauden litzazioak kontutan izanik).

7. Ondorioak

2023an Hezkuntza Formalari (HF) buruz "Giza eskubideen lanketa ikastetxeetan" izenburupean **egindako ikerketak eta 2024an Hezkuntza Ez Formalaren (HEF) esparruan egindako ikerketa honek antzekotasun ugari dituzte giza eskubideen sustapenari, defentsari eta ezagutzari dagokienez.** Hala ere, badira jarraian jasotzen diren ñabardura esanguratsu batzuk:

Bai ikastetxeetan, bai aisialdiko talde, sare eta eskoletan, bai gazte-zerbitzuetan, giza eskubideak sustatzen dira. Baieztapen orokorra da. Haur eta gazteek parte hartzen duten hezkuntza-gune horietan, **giza eskubideak zeharkako gaiak dira, urte osoan zehar egindako jardueretan sustatzen diren oinarritzko esparruak. Haurtzarorako eskubidea, tratu ona, guztiek lantzen dituzten gaiak dira,** eta zenbait eragilek adierazi dute urtero modu zehatzagoan lantzen dituztela giza eskubideak.

HEFko guneetako arduradunek diotenez, **giza eskubideak sustatzen duten hezkuntzaren DNA n daude. Bere hezkuntza-proiektuek eta ideiek** giza balioetan hezteko beharra azpimarratzen dute eta, beraz, bere egiten dituzte programazio orokor eta puntualetan. Era berean, gazte-zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeek gai horiek lantzeko plangintza bat dute. Gainera, Gipuzkoaren kasuan, **Gaztematika Sarea** erreferentea da, eta zerbitzu hori **haurren, nerabeen eta gazteen giza eskubideen defentsan** oinarritzen da; beraz, ulertzekoa da haien baliabideek, prestakuntzek eta abarrek planteamendu horri erantzutea. Era berean, **indarrean dagoen legeriak** (monitoreen prestakuntza zehazten duenak) **esparrua ezartzen du, GGEEak sustatu behar direla ezartzen du, eta HNIBBLOren¹¹ ondorioz, hori guztia definituago dago.**

HEFren metodologia aktiboak bizipen eta eraldaketa pertsonala errazten du, norberaren esperientziaz abiatzen da, eta ez hainbeste barneratzen zailagoak izan daitezkeen teoria eta esparru kontzeptualak planteatzetik. Berezitasuna da hezkuntza-sistema

¹¹ HNIBBLO: 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa.

formaletik kanpo garatzen direla, bere aisialdian, borondatez eta auzoko elkarteetan, parroketan, udaleku-etxeetan, kanpamentuetan, Gaztelekuetan, a priori "lagunkoiagoak". Bereizketa horrek, hasieratik, desberdin egiten du.

Ikerketa honen esparruan planteatzen zen bezala, **metodologiak berak (ikusi eta epaitu eta jardun) eta norberaren beharretatik abiatzeko planteamenduak zuzenean eragiten dienari buruzko, bizipen pertsonalei buruzko hausnarketa errazten du.** Horrek berak eraldatu egiten ditu eta pertsona gisa eragiten die, eta kontzientzia handiagoa sortzen du landutako gaiekiko, besteak beste, giza eskubideen defentsa, errespetuzko jarrerak, gatazken kudeaketa egokia eta abar. Bestalde, ahultasun edo kontuan hartu beharreko elementu gisa, **nahiz eta lantzen diren eta giza eskubideen defentsa helburu duten, giza eskubideak ez dira halakotzat izendatzen.** Balioei, errespetuzko jarrerei, justizia sozialari eta abarri buruz hitz egiten da, baina ez da lortzen esatea giza eskubideak direla, berdinak direla gizateria osoarentzat eta lorpen sozial bat direla; ez direla emandakoak, borroka eta aldarrikapen desberdinen ondoren lortutako esparrua baizik, eta defendatu egin behar direla. **Egindako hausnarketak argi utzi du beharrezkoa dela giza eskubideak hitzez adieraztea eta argi hitz egitea, eta bereziki konektatzea tokiko edo eguneroko urraketak tratatzen direnean.**

Horregatik, sare eta talde desberdinetatik, astialdiko eskolez gain, **informazioa eta prestakuntza ematen zaie begiraleei, hezitzaile gisa duten garrantziaz, eraginaz eta ekarpenaz ohartzeko** eta, aldi berean, **taldeetan lantzen diren gaiak jorratzeko tresnak emateko.** Eskubide zehatz batzuk landu nahi direnean, GGKEek argitaratutako materialak daude.

Baina Komunitateari zuzenean eragiten dioten gatazka batzuk lantzeko zailtasuna ere azpimarratzen da. Hau da, **errazagoa da urrutiko herrialde bateko arazo bat jorratzea egoera bera norbere komunitatekoa denean baino, gatazka sortzen duenean eta modu desagokian eta errespeturik gabe kudeatzen denean.** Gatazka batek komunitatean zatiketa sortzen duenean, nahiz eta jakin taldeak aukera ematen duela, gutxi dira bere saioetan gaia aztertzen duten astialdiko taldeak edo gazte-zerbitzuak, maila desberdinetan izan ditzaketen ondorioengatik.

Gazteentzako talde, eskola eta zerbitzu horietako erreferenteak gazteak izateak, eta haiek izatea dinamikak, hausnarketak planteatzen dituztenak, eta garapen pertsonalean laguntzen dietenak, lotura handiagoa sortzen du, eta haurren, eta batez ere, nerabe eta gazteen aurrean eragingarriago bihurtzen ditu. Baina, era berean, egungo begiraleek errelebo-maila altua dute; izan ere, beren borondatez astialdi taldeari edo gazteria-zerbitzuari eskainitako urteak, oro har, gero eta gutxiago dira, eta, ondorioz, egindako prestakuntzak, ezagutzak eta abar galtzen joaten dira. Etengabe erreleboan egotearen sentsazioa ohikoa da, eta, beraz, prestakuntzetan landutakoari buruzko ezagutza eta kontzientzia galtzea ere bai.

HFren eta HEFren arteko beste antzekotasun bat landutako gaiak dira. Izan ere, bi eremu horietan desberdintasunak eta/edo diskriminazioak dira gehien lantzen diren eremuak. Oro har, bai gazte-talde eta -zerbitzuetan, emakumeenganako diskriminazioa lantzen da. Era berean, LGTBQ+ kolektiboak, pertsona arrazializatuek, dibertsitate funtzionala duten pertsonak eta abarrek jasandako desberdinkeriak ere modu esanguratsuan aztertuko dira.

HEFren kasuan, badirudi, oro har, arrazakeria edo diskriminazioa jatorriaren arabera lantzen dela; baina ez hainbeste migratzaileen eta errefuxiatuen errealitatea.

Hori guztia, beharbada, **gaiak gazteek beraiek planteatutakoak izateagatik da, eta, beraz, beren bizipen pertsonalekin lotuta egoteagatik. Horrela, GGEE batzuk gehiago edo gutxiago tratatzen dira, taldearen bizipenen arabera.**

Aitzitik, HFn gertatzen zen bezala, **motibazio politikoko indarkeriaren ondorioei ez zaie heltzen, eta HEFn ere zailtasunak ikusten dira.** Alde batetik, begiraleek berek urruneko gertakaritzat hartzen dute, gazte gehienek ez dute gertatutakoarekin zerikusirik izan (oro har, ezjakintasun handia dago), gai horiek lantzeak gatazka sor dezake begiraleen artean eta baita familiekin ere; gainera, ez dago hori tratatzeko tresna gehiegi. Horrek guztiak zaildu egiten du gai horri heltzea. Baina egia da, era berean, beste herrialde batzuetako gazteekin elkartrukea egon den proiektuetan gai hori presente dagoela, eta gazteen artean eztabaida sortu duela; izan ere, nortasun baten pean aurkeztu behar dute, eta horrek barne-eztabaida eta -hausnarketa pizten ditu. Gainera, beste herrialde batzuetako gazteek gure herrialdeko historia berriaz eta motibazio politikoko indarkeriaz galde dezakete, eta,

beraz, besterik ez bada elementu gutxi batzuk, adostu egin behar dira, beste taldeari azaltzeko.

Ikerketa honetan eztabaida interesgarria sortu da, ondorioen atal honetan jasotzen den "politiko" kontzeptuaren inguruan, gaur egun duen garrantziagatik. **Politikoa denaz hitz egiteko beharra**, eta ez alderdikieriaz/alderdikieriatik, arduradun/hezitzaile gisa bi kontzeptuen artean dagoen alde handiaz jabetzeko premia. **Beharrezkoa da politika kontzienteki egitea**; izan ere, **pertsona-, talde-, auzo- eta komunitate-eredu batean oinarrituta hezten dela ulertzen da, eta, beraz, taldeak, eskolak, sareek eta gazte-zerbitzuek gizarte-eredu baten aldeko apustua egiten dute**. Sareetako eta eskoletako arduradunak kezkatuta daude gai horren inguruan, eta jakitun dira astialdiko eta gazte-zerbitzuetako talde horiek haurrak eta gazteak gizarte-gaietarako eta komunitate-inplikaziorako dinamizatzeko eta kontzientziatzeko duten erantzukizunaz.

HEF eremu garrantzitsua da beren komunitatearekiko inplikazioaz eta konpromisoaz jabetzeko orduan (alderdi guztietan: hauteskunde-prozesuak, partaidetza-prozesuak, komunitate-guneetan, bai eta alderdi politikoetan, sindikatuetan, herri-plataformetan, erakundeetan...). **Gai horrek argi egon beharko luke, eta kontzienteki eragin beharko litzateke HFn eta HEFn.**

Oro har, aztertzen ari garen gaiei heltzeko materiala badagoela balioesten da; batez ere haiek sustatutako materialak erabiltzen dira (taldeak, sareak eta gazte-zerbitzuak), eta, era berean, astialdiko eskolek eta haien sareek formazioetan emandakoak ere bai. **Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gaztematika Sarea aipatzen da, bere aholkularitzaren bidez esparru bateratu bat eskaintzen baitu** Gipuzkoako gazteria-zerbitzu guztientzat (udalerrri handientzat zein txikientzat), **prestakuntza-eskaintza zabala** (begiraleentzat eta familiarentzat) eta **zerbitzuetan lan egiteko baliabideak**. Lurralde honen berezitasun bat da, baina garrantzitsua bere ekarpenagatik.

Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta, **HEF eremu garrantzitsua da GGEEn defentsan eta sustapenean**, eta garrantzitsua da hori aitortzea; **hezkuntza-espazio eraldatzaile horiek mantentzearen aldeko apustua egiten jarraitu behar da, baina giza eskubideen sustapena eta defentsa ikusaraziz, hitzez adieraziz eta kontzienteago eginez**. Argi dago

astialdiko talde eta eskolen, horien sareen eta gazte-zerbitzuen arteko lankidetzaz bultzatzen jarraitu behar dugula, helburu hori lortze aldera.

Azkenik, eta **GGEE guzti-guztiak lantzen jarraitzearen garrantzia azpimarratuz, gure herrian bizi izandako motibazio politikoko indarkeriaren ondorioetara hurbiltzeko modua bilatzea ere garrantzitsua dela uste dugu**, oraindik gainditu gabeko errealitatea baita eta gure egunerokotasunean modu sotilean eragiten baitu. Erronka bat da begiraleen lana errazteko baliabide eta material egokiak diseinatzea eta eskaintzea, beharrezkoak izango baitira errespetuan eta GGEEren defentsan oinarritutako gizartea eraikitzen jarraitzeko. **HEF espazio pribilegiatua da haur, nerabe eta gazteak Giza Eskubideetan hezteko eta horien alde egiteko.**